

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/35/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, gailu elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murriztapenei buruzko 2002/95/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/35/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008 que modifica la Directiva 2002/95/CE sobre restricciones a la utilización de determinadas sustancias peligrosas en aparatos eléctricos y electrónicos, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/67, 2008/3/20koa*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/35/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko martxoaren 11koa,

**gailu elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murriztapenei buruzko
2002/95/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuko 251. artikulua ⁽²⁾ araututako prozedura betez,

alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 2002/95/EE Zuzentarauak ⁽³⁾, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak xedatzen du, zein diren Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu beharreko neurriak. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak ⁽⁴⁾ berari dagozkion eskumenak betearazteko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. Lehenengoan, Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarriko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zein neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura barneratzen zen. Zenbaitetan elementu horietako batzuk ezabatzen ziren, edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatzen.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ Adierazpenaren arabera, Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen duen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, eranskinak egoki ditzan. Neurri horiek orokorrak eta 2002/95/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrolatzen duen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Horrenbestez, aipatutako 2002/95/EE Zuzentaraua aldatu egin behar da.

(6) Zuzentaru honen bitartez 2002/95/EE Zuzentaruaren egin beharreko aldaketak egokitzapen teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, ez dira, ezinbestez, Estatu kideen eskutik barneratu behar. Ondorioz, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

(1) EO C 161, 2007.07.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko uztailaren 11koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak hartutako Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(3) L 37 EO, 2003.02.13koa, 19. or. Zuzentaru hori Kontseiluaren 2006/692/EE Erabakiak aldatu zuen azkeneko (L 283 EO, 2006.10.14koa, 50. or.).

(4) EO L 184, 1999.07.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (EO L 200, 2006.07.22koa, 11 or.).

(5) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

2002/95/EE Zuzentarauak aldaketa hauek izango ditu:

1) 5. artikuluan, 1. paragrafoa honela aldatuko da:

a) sarrerako esaldiaren ordeztu, testu hau jarriko da:

«1. Eranskina aurrerapen zientifikora eta teknikora egokitzeko beharrezkoak diren aldaketa guztiak hartuko dira, hurrengo helburuak betetze aldera:»;

b) lerrokada hau erantsiko da:

«Lehenengo lerrokadan, a), b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren neurrien helburua Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea izango da, eta 7. artikuluan, 2. paragrafoan, agindutako kontrolaren arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

2) 7. artikuluan ordeztu, testu hau jarriko da:

«7. artikulua

Komitearen Prozedura

1. Batzordeak komitearen laguntza izango du; komite hori, hondakinei buruzko 1975eko uztailaren 15eko Kontseiluaren 75/442 EEE Zuzentarauko (*) 18. artikuluari jarraiki sortu da.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa ere betetz.

2. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

3. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon, 2008ko martxoaren 11n

Europako Parlamentuaren izenean, Presidente H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Presidente J. LENARCIC

(*) L 194 EO, 1975.07.25ekoa, 39. or. Zuzentarau hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak (EE) aldatu zuen azkeneko (L 284 EO, 2003.10.31koa, 1. or.).

2008/35/EE zuzentaraia (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/67 2008/3/20koa)